



Euskadi, auzolana



Zurekin

'Mutildantzak', entzuteko diskoa aurkeztu du Aiko taldeak

Baztango dantza tradizionalaren musika biziberritu du dantzari eta maisuen kolektiboak, «gure folklorearen azkenetariko erronka koreografikoa» dena

AMALIA IBARGUTXI
Jueves, 14 junio 2018, 23:17



Dantza tradizionalen formatu berriztatua ikustarazteko lan egiten du Aiko taldeak, eta helburu horrekin berarekin prestatu dute lan berria.

'Mutildantzak' izeneko diskoa aste honetan, Bilbon, aurkeztu du Patxi Laborda Aiko-ko dantza maisuak «denborarekin egokituz joan diren dantzen adibide paradigmatico» bezala. Izan ere, adierazi dutenez, «dantzak ez dira betikoak eta ez dira beti berdin dantzatzen, bizirik daude. Norbaitek sortzen ditu eta denborarekin aldatu egiten dira, dantzatzen dituen gizartea aldatzen den legez».

Dantzari eta maisuen kolektiboa da Aiko, dantza tradizionalen hedapena sustatu eta horiek balioan jartzeko lan egiten duena. Horregatik, Baztango gazte ezkongabeei zuzendutako dantza hartu eta biziberritu egin dute. Labordak gaineratu duenez, «**ez dira dantza ikusgarriak, ez dute behar aparteko gaitasun fisikorik**», baina «kontzentrazioa» eskatzen dute.

«Norbaitek mutildantzak ezagutzen baditu ondo daki hau: **doinuak buruan izan behar dira eta dagozkion urratsak barneratu, musika jarraitu**, melodia adi-adi aditu beste edozer baztertuz eta banakako

erronka hori inguruko dantza taldeko kideekin partekatu. Maurizio Elizalde bezalako txistularien eskutik guregana heldu dira, gure folkloreaken azkenetariko erronka koreografiko bilakatuz», adierazi du.

Tradizioz jaso ditugun dantza hauek egiten dituzten dantzariak laguntzeko helburuarekin kaleratu dute diskoa. Horretarako, txistuarekin eta atabalarekin batera, beste instrumentu batzuk ere gehitu dituzte «Aiko taldearen soinu eta koloreetara egokitzeko», hala nola akordeoia, kontrabaxua eta danborra.

Disko moduan plazaratu dute 'Mutildantzak', eta asteburuan, hilak 16, **Durango egingo den Dantzazale Egunean entzun ahal izango da zuzenean lehenengoz**. Dantza lantegia ere prestatzen ari dira datorren astean Bilbon egiteko.

TEMAS Euskera

Recibe nuestras newsletters en tu email	Apúntate
---	-----------------

Lo + leído

El Correo Zurekin

[Top 50](#)

- 1** Alberto Berasateguiaren omenez, izena aldatuko diote Kiroletako pista nagusiari
- 2** Egilearen itzal luze (eta iluna)
- 3** Ahozko literatura, kantagintza tradizionala eta bertsolaritza ardatz, euskararen astea egingo dute Holandan
- 4** Zazpi kaleetako balkoien dekorazio lehiaketa amaitzear dago
- 5** Ikasleen Jazz Orkestrak Bizkai aldean igaroko ditu datozen egunak